

ZENBAT BURU

Aitor Argarate

ERREPORTAJEA

Motorrak zaletasuna baino gehiago

BARREN

1999ko maiatzaren 20a
VII. urtea - 279. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



GEHIGARRIA

KILIBARREN

KULTURA

Evaristo Izetari omenaldia

KIROLA

Pedrusko futbol taldea mailaz igo da

MAIATZAK 21

GREBA OROKORRA

ELA · LAB · ESK · STEE/EILAS · UGT · CCOO

1999 MAIATZA

					1	2
3	4	5	6	7	8°	9
10	11	12	13	14	15°	16
17	18	19	20	21	22°	23
24/31	25	26	27	28	29	30

**35 orduko lan-astea,
enplegu gehiago eta hobea**

ASTE LITERARIOA

LITERATURA eta BIDAIAK

maiatzaren 17tik 26ra

MAIATZAK 17, astelehena

HITZALDIA-DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Turkiatik Myanmar-era,
bi emakume bizikletaz

Hizlariak:

Esther Mugerza eta Amaia Elozegi
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Arratsaldeko 19:30ean



MAIATZAK 20, osteguna

ONGARRI ZINE KLUBA

"Vidas al límite" pelikula

Zuzendaria: Agnieszka Holland

Antzezleak:

Leonardo di Caprio eta David Towlis
Herriko Antzokian
Gaueko 22:15ean



MAIATZAK 26, asteazkena

HITZALDIA-DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Bidaiatzea, bizitzeko modua

Hizlaria: Jon Arretxe

Gaztetxean

Arratsaldeko 19:30ean



ANTOLATZAILEA:

URRUZUNO
LITERATUR TALDEA



LAGUNTZAILEAK:




ELGOIBARKO UDALA



ONGARRI ZINE KLUBA



ALDUNDIA



AITOR ARGARATE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzeko dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Nire kalea

Eibartarra izan arren, nik badaukat lagun bat izenburu honekin Zarauzko ipuin lehiaketa irabazi zuena eta, beharbada, horregatik nik ere bide berbera hartu dut, titulua behintzat kopiatu egin diot.

Pilota partidua amaitu berri dugu, gaur ere galdu, 22-17. Hurrengoan, beharbada bihar, ni atzelari jartzen banaiz baliteke kontrarioei min gehiago egitea, baina gaur eta, galtzen dugun bakoitzean beti antzeko zerbaite egiten dugu, pilota Genaro Barateroari entregatu eta ordainan jokatutako dugun ordubeteari dagokiona. Eskuak bero-bero eta handi-handi eginda dauzkagula Kondetaren tabernara sartu eta porroi fresko-freskotik limonadarekin nahastutako garagardoa edan ostean, ordaindu, galtzaileek beti ordaindu.

Izertitan botatakoa errekuatu dugulakoan gaude, baina izerdiarekin batera, makina bat mineral galtzen dugu eta hauek ez dira likidoarekin hartzen, hauek janaria behar dute eta, honetarako Moderna konfiteriara joatea baino hobirik bator? Ez, bertan tripa asetzeko beste gauza erosi, eta arratsaldea luzea dela-eta, -Valentin Uria ferreteriara- sartu eta handik ezin esku hutsik irten.

Gaur eguneko Aste Santuak ez dira orain dela hogeitahogei bost urtekoak, gure herrian behintzat, prozesio, balkoi apainketa, e.a.ri dagokionean eta, arropa estrainatzearen kontuan ere ez dut uste lehengoan gaudelarik. Hortxe dago Ecenarro sastreria neurriak ondo hartutakoan traje dotoredorea egiten dizuna egun hauetan berri-berri jantzita kalera ateratzeko. Dotorezia horretan nik beti praka motzak erabili izan ditut eta esportak?, eta gainontzekoak? Patxika Munandineko denda paregabea duzu horretarako egokia.

Bizikleta hartuta egiten dugun karrera garrantzitsuena, motzean behintzat, "vuelta a la manzana" deritzona da, izan ere, karrera luzeak egiteko

Sallobente edo Urtia aldera jotzen dugu. Bada gure zirkuito hau txistu bizian egiterakoan aurkitzen dugun traba handia, ni bizi naizen kailejoi aurrean egoten diren kamioiak dira, *Rafaelden dandan* jeneroa sartzen aritzen direnean, hemen beti kontu handiz ibili beharra daukagu eta, kamioi artean ibiltzen trebeena dena, izaten da garraile.

Baina beti ezin gara kalean ibili eta etxean sartutakoan badira betebeharrekoak, zakarrak kale ertzean periodikoarekin batuta ateratzeaz gain. Bat behintzat, aitzixari, *Potxokanean* lagun artean dagoenean afari-merienda eramatea, zeregin hau gustura egitekoa da, beti baitago baten bat errialbikoren bat emateko prest. Beste bat, botailak hartu eta *Mugika ferreteriara* pattar bila joana. Denda honetako usainak ahaztezinak dira, betiko ditut gogoan.

Eta hainbeste lan eta jolas egin eta gero, egoten da urtean zehar egunen bat, lagunak elkartu eta *Barrutia jatetxera* joateko aukera, gora, lehenengo pisura, balkoira irten eta iturri aurreko gasolindegia ikusteko aukera ematen zizuna edo, gure gozodentatik gertu dauden Muga eta Jose-daren amaren hari-denda edo, Vinoterokuen denda.

Hauxe da gure kalea, esan gabekoak ere hor daudelarik, gure herriko jai nagusienei izena ematen diena eta kailejoi baten bidez -kaixo Patxi eta Delfina, kaixo Nizeto, kaixo Porru eta konpainia- Baltasar pilotari handiari izena ematen dion elkarteak kokatuta dagoen kalea batzen duena.

Ni prest nago patinekin edo bizikletarekin kale buelta emateko, baina beti ere inguruan Felipe aguazila ez badabil, ipurdia berotzeko beti prest dagoena.

Ba al dakizue zein den nire kalea?



Barrak, Birrak eta Barreak

©KOKOE 99/57



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarria

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA

Maitane Cid

MAKETATZAILEA

Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale


LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



OHARRA:

Aste honetan **BARREN** ostegunean, hilak **20**, banatu dugu, bihar (maiatzak 21) *Gertu* Inprimategiko langileek eta **BARREN**eko banatzaileek greba egingo dutelako.

21eko Greba Orokorra

Bada urtebete baino gehiago, lanaldia eta behin behinekotasuna gutxitzearen aldeko, ordu estren aurkako eta langabetuentzat gutxiengo soldata soziala eskatzeko mobilizazioekin hasi ginela. Zehatzago esateko, lan orduen eta irabazien banaketa eta babes soziala eskatzen ditugu, bizitza duina goa izan dezagun.

Azken bost urteotan egoera ekonomikoak hobera egin du eta Euskal Autonomi Erkidegoko langabezia tasa %16,4 da. Langabeziak gizarteko alor ezberdinetan du eragina, batez ere gazteengan eta emakumeengan. Euskal Herrian bizi dugun gizarte eta lan egoera kezagarria da oso, egun 180.000 langabetu baitaude.

Kontratazio sistema berriek, lan baldintza eskasak eta esplotazioak lan merkatuan sartu berriak direnei zuzenean eragiten diete. %65 da gaur egun lan kontratu finkoa daukatenen potentzajea. Kontratuen %25 ETTek bideratzen dituzte eta gazteen %14 kontraturik gabe ari da lanean. Bestalde, 40.000 familia daude, non etxeko inork ez duen lanik egiten.

Enpleguak ez du aurrera egiten, lan baldintza eskasak indarrean diraute eta hauek irabaziak banatzeko moduaren ondorioa dira. Ekoizpenaren gorakadak enpresariengan eta kapitalarengan du eragina.

Irabazien gorakada txikiagoa izanez gero, lanaldia gutxitu daiteke eta

baita enplegua sortu ere. Hau da, aberastasunaren banaketa egokiagoa lortu. Euskal Autonomi Erkidegoan INE-Mek langabetuen laurdena hartzen du.

Eusko Jaurlaritzan dago Eskubide Sozialen Karta, 80.000 sinadurak abalatu zutena. Horrek, langabetuentzat salario soziala eskatzen du.

Patronalak (Confefask), ordea, lanaldia jaisteari buruzko jarrera itxia azaldu du. Eusko Jaurlaritzak politika aktiboa jarri beharko luke martxan enplegua sortzeko eta diru sarrerarik ez dutenei gutxieneko soldata emateko.

Analisi honen ostean, mobilizatze-ko eta gure inguruan ahal dugun eran laguntzeko beharra ikusten dugu, gizarte justuago bat lortzeko.

Elgoibarko ELA, LAB, EH eta Gazte Asanblada.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



GALDERAK

◆ Honako galdera hau iritsi da gure erredakziora E-postas. “Basarte kaleko biztanleak bero-bero eginda gaude eta ondorengo galderak luzatzen dizkiogu Hirigintzako zinegotziari: **noiz arte jarraitu behar dugu gauzez etxera ilunpean joaten? Istripuren bat, lapurreta edo beste zer-bait grabea gertatu beharko ote da farolak gauzez pizten hasteko?** Gure auzunean herriko beste edonon bezala ordaintzen ditugu zergak eta dedikazio piska bat eman behintzat”.

Hirigintza sailera jo dugu eta honakoa izan da Udaleko elektrizitate zer-bitzuko arduradunak eman digun erantzuna: **“Basarte kaleko argizketa arazoaren soluzioa eta erantzunkizuna, oraingoz behinik behin, Basarte kalea eraikitzeaz arduratu zen erai-kuntza promotorearen esku dago. Udala eta Promotorea ados jar-tzen diren arte, Udalak ezin izango du ezer egin”.**



KEXAK

◆ Herritar bat baino gehiago etorri zaigu kexa berarekin. **“Azkenaldian herriko hainbat auzotan konponketak egin dituzte, San Roke auzotik pasatzen den errepidean edo Santa Ana kalean esaterako. Baina konponketa hauek ez dute arazoa tapatu besterik egiten, ez baita nahikoa zuloen gainean partxe batzuek jartzea. Lehen erroberak zuloan sartzen baziren, orain oztopo berri bati aurre egin behar diete, konpondutako zuloei”.**

◆ Herritar batek honako kexa hau azaldu digu. “merkatu plazaren azpian, hau da, BARREN dagoen lekura jais-teko pasalekuan, kamioiak eta kotxeak behin baino gehiagotan pilotzen dira eta bidea oztopatzen dute. **Askotan gertatu izan zait haurraren kotxearekin joan eta ezin aurrera egitea. Ni bezala pertsona ezinduek ere arazo bera izango dutelakoan nago.** Beraz, eskertuko nuke, merkatu plazako arduraduna edo betebeharrori dagokion pertsona, kamio bat baino gehiago ez pilotzeaz arduratuko balitz.

B AI, E S A N ?



Mikel Lizarralde

Gipuzkoako Gazteen Gurutze Gorriko zuzendaria

Joan den larunbatean, hilak 15, omenaldia egin zioten orain gutxira arte **Gazteen Gurutze Gorriko zuzendaria** izan den **Mikel Lizarralderi**. Urte luzetan Elgoibarko taldearen arduradun izan ostean, Gipuzkoako Gurutze Gorria joango da orain. Guk berarekin hitz egin nahi izan dugu, urte hauetako balorazioa egiteko eta aurrera begira dauzkan asmoen berri izateko.

- **Urte askoan izan zara Gazteen Gurutze Gorriko zuzendaria.** - Gurutze Gorria ambulanzien asuntorengatik sortu zen. Baina, garai hartan Gurutze Gorriko Gipuzkoako arduradunak Gazteen Gurutze Gorriko proiektua aurkeztu zigun. Hemengo lehendakariak, Milak pentsatu zuen programa hura nik eramateko egokia zela eta ordudunik 9 urte inguru pasa ditut bertan.

- **Zein balorazio egingo zenuke urte hauetako lanari buruz?** - Hasiera gogorra izan zen. Ez geneukan aurrekonturik, lau pertsona ginen, ez genekien argi zer egin behar genuen eta lokalik ere ez geneukan. Orduan, kanpoko laguntza asko jaso genuen eta piskanaka herrian ezagunak izaten hasi ginen. Ondoren, Parrokiarekin lokal bat lortu genuen, haurrak ere etortzen hasi ziren... Urteen poderioz ikasten joan gara, oraingo aurrekontua 250.000 pezetakoa da, lokala badaukagu, *Gipuzkoan Gazteen Gurutze Gorriko Talde* indartsuenetakoa gara eta euskara garatzeko proiektu baten barnean gaude. Balorazioa, beraz, positiboa da. Etapa bat bukatu dut eta gauza positiboak hartu ditut gogoan.

- **Orain, Gipuzkoako arduradun izatera pasako zara.** - Gurutze Gorria hauteskunde prozesuan dago. Ziklo horretan *Gazteen Gurutze Gorriak* bere ordezkariak aukeratzeko autonomia dauka. Gipuzkoako beste herrietako ordezkariak egokiena ni aurkeztea zela aipatu zidaten. Honi denbora asko eskaini behar zaio eta gainera bolondres modura, beraz, zalantzak izan nituen. Baina, aurkeztea erabaki nuen eta azken batzorde probintzialean Gipuzkoako ordezkari posturako aukeratu ninduten.

- **Zein eginbehar izango dituzu hemendik aurrera?** - Nire lana koordinazioa eta ordezkaritza politikoa izango da. Ni herri mailako ekintzetan laguntzaile gisa arituko naiz eta Gipuzkoan ordezkaria izango naiz. Proiektuak ere aurkeztu ahal izango ditut, baina hori nire lana baino gehiago taldeko lana da.



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

Errepideaz

GOZATZEKO BESTE modu bat



Igandean Elgoibarren egin zen Txirindulari lasterketaren aurretik ateratako argazkia. Ezkerretik hasita bigarrena da Toni.

Elgoibarren makina bat motorzale dago. Hor dugu adibidez, duela urtebete eskas sortu zen Txusko Moto-Klub taldea. Oraingon ordea, tamainu handiagoko motorrak dituzten motorzaleekin fijatu gara. CBR edo lasterketetarako motorrak dituztenengana jo dugu eta Custom motorrak dituzten elgoibartarrekin ere egon gara beraien bizipenen berri jakiteko. Futbolzaleek zaletu sutsuak izatearen fama duten arren, motz gelditzen dira motorzaleekin konparatuz gero. Abiadura dute gustuko batzuek eta errepideko kilometroak bata bestearen atzetik eginez disfrutatzen dute beste batzuek. Argi dagoena, motorzale denentzat motorrean ibiltzea eguneroko bizimodutik aldentzeko 'tuboeskapea' dela da.

Angel Maria Usobiaga "Toni" 44 urteko elgoibartarrak duela 10 urte-tik Kawasaki 750 motorra du. Tonirentzat horrelako motoa izatea hobby bat da. Kotxea alde batetik bestera

mugitzeko erabiltzen du, beharrezkoa delako. Motorra, berriz, disfrutatzeko erosi zuen, "motorrian zuazenen, inportantia biak berbera da, eta ez nora zuazen edo helmugia. Beste gauza guztixak ahazten ditxuzu eta kilometruak bata bestian atzian einez disfrutatzen dozu. Astian zihar izaten ditxun umore txarra eta tentsiua kentzeko, azeleradoriari sakatu eta belozidadia sentitzia bezelakorik eztao". Motor hauek potentzia handia izaten dute eta abiadura handiak hartu ditzakete, 0-tik orduko 100 km-ra 2-3 segundu eskas-tan pasa daitezke. Hori dela-eta, motorra ongi ezagutzea komeni da, bere ezaugarriak eta eskaintzen dituen aukerak jakitea, alegia. Toni ere iritzi berekoa da, "motorrari ez jako bildurrik euki bihar, baina bai errespetua. Esku artian dakagun makinia ongi ezautzia inportantia da. Batzuek erosten daben lehen motorra zilindrada edo potentzi handikua izaten da. Baina egokixaua da gutxinaka jutia, eta zilindrada gutxiaokuekin hastia. Lehen motorra 17 urte nitxuanian erosi naban

'Mobilette' bat izan zan. Gero Lanbretta 200 bat eta azkenik oin dakaten Kawasaki-kixa. Gazte askok motorrikan azkarrenak eta haundixenak nahi izaten ditxue eta ondiokan motorra ondo ezautu ez arren, zorian pare ibiltzen dia. Egunkarixak irakurtzia eta moto istripuetan zenbat gazte hiltzen diazen ikustia besterik ez dao".

Tonik esan digunez, Elgoibarko motorzale batzuek txirindulari lasterketetan laguntzeko elkartzen dira, "txirindularixak pasauko diazen kruziak seinalizau eta zaintzen ditxugu. Motorrian ibiltzeko beste aukera bat izaten da. Bukaeran elkarrekin zeozer hartzen dogu eta gure abenturatuak kontatzen dizkiou alkarri". Asteburuetan irteerak egiten dituxtela ere aipatu digu, "motorzaliok elkartzen geran tokixan erabakitzen dou nora jungo geran. Bateron batek Tolosako edo Bera de Bidasoako babak jateko asmua badaka, errioxako ardo eder bat probatzekua gogua edo Asturixaseko sagardia... pentsau eta in, izaten da. Motorrian ibiltzen asko disfrutatzen dou eta bide batez leku asko ezautu eta bertako

gastronomia probatzeko aukeria izaten da. Kontua egun pasa ederra eixia da”.

Afizioa baino gehiago

Motorren munduak jarraitzaile asko ditu atzetik. Futbolzaleek jarraitzaile sutuak izatearen fama duten arren, motz gelditzen dira motorzaleek erakusten duten pasioaren eta zaletasunaren aurrean. Motorzalea izatea, afizio bat baino gehiago, askorentzat bizitzeko era bat da. Horren lekukoa da Jerezeko eta Montmeloko (Bartzelonan) motoziklismo sari nagusietan biltzen den jendetza. Duela pare bat asteko Jerezeko sari nagusia ikusteko adibidez, 150.000 pertsona baino gehiago eta 50.000 moto bildu ziren. Toni ahal duen guztietan joaten da lasterketak ikustera, Le Mans-eko 24 orduak, Madrileko, Valentziako eta Bartzelonako lasterketak ikusi ditu besteak beste. Duela astebete, Jerezeko motoziklismo sari nagusia ikustera joan zen “kriston ambientia egoten da, leku eta itxura guztixetako jendia juten da. Motorrak ere estilo eta marka guztixetakuak ikusten dia, kaskarrenetatik hasi eta 4 milioitik gorakuetaraino. Lasterketa aurreko egunetan 5 kanpin gune jartzen ditxue eta gabetan motorrekin zerikusixa daken espektakuluak antolatzen ditxue. Nahi daben guztixek parte hartzen dabe eta izugarritzko zorakerixak itxen ditxue, ‘caballituak’, derrapajiak, irteera ikusgarrixak, etab. Pasada bat izaten da. Lo itxeko asmuakin juten danak jai daka, hango zaratiakin ezinezkua baita”.

Motorzaleen kontzentrazioak

Motorzaleen kontzentrazioetan, izena ematean diru kopuru bat ordaintzen da, 1.000 edo 2.000 pezeta gutxi gora-behera. Motorrean itzuli bat emanaz, kontzentrazioa egiten den inguruko jaki tipikoak jateko geldiuneak egiten dira. Tonik esan digunez, “Valladoliden urtero eitxen dan kontzentraziuan izan naiz aurten. 14.000 pertsona elkartu ginan eta Tordesillas herria jateko eta edateko ezer gabe laga gungun motorzale danon artian. Euskal Herrixan ere itxen dia motorzalien kontzentraziuak, baina txikixauk”.

Customak errepideaz gozatzeko

Carlos Ruiz 35 urteko elgoibartarra 12 urte zituenetik ibiltzen da motorrean. Bete izan da bere ilusioa eta orain dela 4 ur-

te Yamaha Virago XV 1000 motorra erosi zuen. Custom bezala ezagutzen dira motor hauek. 300 kilotik gorako pisua du, 50 zaldiko indarra eta 180 km/h-ko abiadura har dezake. *Harley Davidson* famatuak izan ziren moeta honetako motorren aintzindariak. Baina, gaur egun, japoniar etxe denek fideltasunez kopiaitzen dituzte tankera honetako motorrak. Carlosek esan digunez, “ imaginatzen nuen moto ideala zen eta aukera izan nuenean, erosi egin nuen. Ez nuen abiadura bizian ibiltzeko motorrik nahi. Eguraldi ona egiten duenean kostaldetik motorrarekin paseatu eta antzerako irteerak egitea zen nire asmoa. Izan ere, Custom-ak paseatzeko eta ibilbideaz gozatzeko pentsatuak daude, bihurguneak gehiegizko abiaduran eta etzanegi hartuz gero adibidez, lurra ukitzen du behaldea eta abiadura gutxitu beharra dago. Jarlekuak zabalak dira eta oso bizkarralde eroso dute, ergonomikoki diseinatuak daude. Abiaduran ibiltzeko motorretan, berriz, gorputzaren postura forztatuagoa da, haizeari aurre egiteko etzanda baitzoaz. Hankak motorraren gainean jarri, besoak eskulekuetara luzatu, kaskoaren kristaltxoa gora altxatu eta haizea aurpegian nabari duzunean, askatasun sentazioa deskribatu ezina da. Erlajatzeko modu ezinhobea da”.

Carlosek motorrekiko zaletasun handia du, hurrengo astean Montmeloko zirkuitora joateko asmoa du. Motorzaleen kontzentrazioetara ere joaten da. Azkenegoz Arrasaten izan zen eta oso giro ederra egoten dela esan digu. “Motorzaleen artean erlazio berezia dago. Matxura bat delate a

motorzaleren bat bide bazterrean geldituta badago, ziur egon handik pasatzen den lehen motorzaleak lagunduko diola. Errepidean bi motorzale gurutzatzen direnean ere beti egiten diote agur elkarri”.

Hobby garestia

Motor bat erostea nahiko garestia da. Ganorazko batek milioi eta erdi baino gehiago balio ditu. Harley merkeenak esaterako, 2 milioitik gorako prezioa du. CBR edo lasterketetarako motorretan, urtero ordaindu beharreko gastu fijoak daude: seguruak, urteroko errebisioak eta gurpilak aldatzeak (5.000 kilometroero aldatzea komeni da) 100.000 pezetatik gora balio du. Custom motorretan, berriz, hasieran ordaindu beharreko prezioa izaten da altua, milioi batetik gora, baina oso motor gogorak dituzte eta ez dute arazo gehiegirik ematen. Urteak pasa ahala hasierako balioa mantentzen dute. Hori dela-eta, bigarren eskuko Custom motorrak nahiko garestiak izaten dira.



Carlos Ruizek, Yamaha Virago XV 1000 motorra erosi zuen duela lau urte.

**MAIATZAREN 21A, 35 ORDUKO
LAN-ASTEAREN ALDEKO GREBA OROKORRA**

Ba al daukazu greba egiteko asmorik?




PEDRO RUIZ
45 urte, txoferra

Bai. Hau aurrera ateraz gero ordu gutxiago lan egin beharko genuke guk. Gazteek eta langabetuek, berriz, lanerako aukera gehiago izango lukete.



INES JUARISTI
47 urte, langilea

Bai. 35 ordukin gaztientzako lan gehixo sortuko dala pentsatzen dot. Gaztiak dauden lekuan, ordu estrak kentzia eta eurak lana euki-tzia nahi izaten dou.



KOLDO ARANBURU
45 urte, fresadorea

Bajan egongo ez banintz egingo nuke. Greba garrantzitsua eta premiazkoa da. Euskal Herriko langabezia tasa altua da eta langile asko egoera prekarioan daude.



KONTXI ARANO
45 urte, dendaria

Ez dakit zer ingo deten, gure lanian ezin da jakin. Parian piketiak jarriz gero igual derrigortu ingo gaitxue dendia istera. Ostiralian erabakiko det.



MANUEL CORDOBA
46 urte, komertziala

Oraindik ez dugu lantegian erabaki. Hala ere, 35 orduko lanasteak Frantzian eta Alemanian ez du emaitza onik eman. Ez dakit hori den irtenbiderik egokiena.



MARI JOSE ESTIBARIZ
41 urte, dendaria

Dendetako eta tabernetako langileak autonomoak gara, eta gure egoera ezberdina da. Baina, langileei laguntzeko denda itxiko dugula uste dut .



ITURAIN & ASOC.
Inmobiliaria zerbitzu integrala
CONSULTING GROUP
Jesus M. Gabilondo Urain

- ✓ Etxebizitzen salerosketa probintzia osoan
- ✓ Eskari handiagatik etxebizitzak behar dira

Ubitarte, 4-5 esk. · Tel. 943 74 45 99 · Faxa: 943 74 18 91




Jesus M. Gabilondo Urain
ERREFORMAK · ETXEBARRUKO LANAK
LAN TOPOGRAFIKOAK

Delineatzailea - Topografoa · 1397. kolegiatua
Ubitarte, 4- 5. esk. · Tel: 943 74 45 99 · Faxa: 943 74 18 91


🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
🏍️ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatoz informazio eske!



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

ISPILUARI DEGIRA




Ion Ulaia

SAHATZU harategikoa

- Behi eroen gaixotasuna elgoibartarren nabaritu al duzu?
- Ez noski, elgoibartarrak behi zoroen okelarik ez dute jaten.
- "Txerri" guztiei iristen al zaie San Martin eguna?
- Noski baietz, eta espero dut hemen inguruko txerri guztiei iristea.
- Zer dira zezenketak zuretzat, artea ala tortura?
- Nik uste dut tortura direla.
- Nola jokatu zenuke zezenari moduko adarrak jarriko balizkizute? - Lehen aipatutako txerri mordo bat aurrean eramanda.
- Zein emakumerekin eroriko zinake haragiaren pekatuan?
- Julia Robertsekin.
- Nori bihurrituko zenioke lepoa oilasko bati bezala?
- Momentu honetan, Milosevic jaunari.
- Etxean ere amantala zuk janzen duzu edo harategian bakarrik? - Etxean, sozidadean eta toki askotan.
- Zer esango zenioke barazkijale bati?
- Ez duela dena ondo egiten eta haragi apur bat jan egin behar dela.
- Zer eduki behar du pertsona batek kalitatezko labelaren etiketa jartzeko? - Pentsatzen duena esatea eta besteekin zintzo jokatzea.
- Athletic-eko jokalariek txerriak jatea debekatuta omen dute. Zer esango zenioke Padillari?
- Astean behin bada ere jaten uzteko, beharrezkoa da-eta.
- Zein egoeratan ipintzen dituzu muturrak? - Tokiaren arabera da. Harategian ezin ditut muturrak jarri, nahiz eta askotan gogoia eduki.
- Ikaslea zinenean erabiltzen al zenituen txuletak azterketetan?
- Batzuetan bai, eta beti aprobatzen nituen justu-justu bazen ere.
- Animalien eskubideen defendatzaile batek hiltzaile deituko balizu, zer erantzun zenuke? - Batetik, arrazoia daukala, animalia-ri bizia kentzen baitiogu, baina bestetik, zerbait jan beharra dagoela.
- Gizarteko zer moztuko zenule laban batez?
- Zenbait ministroren lepoa.

Ainhoa Andonegi

ALDATZE



**Batxilergoa
(16-18 urte)**

HASI eta HEZI, GUREKIN

**FAKULTATE,
ESKOLA UNIBERTSITARIO eta
2. mailako LANBIDE-HEZIKETA ZIKLO
guztietara heltzeko
PRESTAKUNTZA IBILBIDE APROPOSAK**

- * Jantoki zerbitzua
- * Neska-mutilei eskainia
- * Ekintza osagarriekin borobildua

Aldatze kalea, 5 · Eibar · Tel. 943 70 11 50 · Faxa: 943 70 13 04



● **EGUNKARIAren kapitala gehitzeko laguntza eskaria**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartetik aditzera eman diguteenez, *Euskaldunon Egunkariak* bosgarren kapital gehitzeari ekin dio. Kapital gehitzearen helburu nagusia errotatiba propioa erostea da. *Egunkariako* arduradunek honetaz gain, asmo gehiago ere badituzte, besteak beste, astelehenetan ere kaleratzea eta edizio lokalak prestatzea. Beraz, *Egunkariari* lagundu nahi diozuen euskaltzale eta herritar guztiok deitu Elgoibarko Izarrako 943 74 16 26 telefonora, maiatzaren 31 baino lehen. Bertara deituta, zenbateko laguntza emateko prest zaudeten esan baino ez duzue egin behar, hortik aurrerako Elgoibarko Izarrako arduradunek egingo dute.

● **Ostegunetako azokaren leku aldaketa**

Elgoibartar guztiei jakinarazi nahi zaie, ostegunetan Plaza Handian egiten den azoka datozen hiru edo lau asteetan Plaza Txikian izango dela. Horren arrazoia, Udaletxeko fatxadaren eta Plazako frontoiaren obrak dira. Beraz, aste batzuetan bada ere, lehen joaten ziren leku berera jo beharko dute elgoibartarrek erosketak egitera.

● **Euskara irakaslea izateko glotodidaktikako ikastaroa**

Euskara irakaslea izateko glotodidaktikako ikastaroa antolatu du AEK-ak. Ikastaroa uztailan izango da, oraindik erabaki gabe dagoen Debarroko herriren batean. Izena emateko azken eguna ekainaren 10a da. Informazio gehiago nahi duenak Elgoibarko AEK Euskaltegira jo dezake (Plaza Txikia 3).

● **Haizea taldearen lagun arteko bazkaria**

Haizea Emakume Taldeak lagun arteko bazkaria antolatu du ekainaren 5erako, larunbata. Bazkaria Herri-Gain jate-txean izango da eta 3.500 pezeta ordaindu beharko dira. Bazkal ostean musika egongo da eta bertara hurbiltzen direnek giro alaietan dantza egiteko aukera izango dute. Izena eman nahi duenak Pitxintxu liburudendara jo dezake.

● **Sandra Pinacho da San Pedroko kanpako arduradun berria**

Udako denboraldian, eguraldi ona egiten duen guztietan, hainbat pertsona hurbiltzen da San Pedroa egun pasa. Aurten ere Udalak Kanparen arduraduna aukeratu du. Deialdi publikoaren ondoren aurkeztutakoek San Pedroko kanpan belarra moztu zuten. Gero elkarrizketa pertsonala egin zitzaientzen, besteak beste euskara maila neurtzeko. Frogak pasatu ostean Sandra Pinachok eskuratu zuen postua. Aurrerantzean bera arduratuko da inguruak txukun mantentzeaz, belarra mozteaz, trafikoa zuzentzeaz, jendeak arauak betetzen dituela kontrolatzeaz...



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

Miguel ALTUNA



1999/2000 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINNTZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- ✍ Administrazioa eta finantzak
- ✍ Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- ✍ Mekanizazio bidezko produkzioa
- ✍ Proiektu mekanikoen garapena

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- ✍ Mekanizazioa
- ✍ Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

- ✍ Norberaren gaitasunen eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- ✍ Behar diren baliabideekin
- ✍ Bide eta ate guztiak zabaltzen dituzten ikasketak
- ✍ Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

*Aurrematrikula epea ZABALIK ekainaren 1etik 9ra.
Oibizko matrikula epea: uztailaren 1etik 9ra.*

Ibargarai 1. · Bergara · Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40


"Gurean Bai" proiektua ETBn

Elgoibarko Izarraren "Gurean Bai" proiektuari buruzko erreportajea eskainiko dute ETBko "Hitzaro" eta "Lengua Viva" saioetan. Duela bi aste, hilaren 10ean programako kideak Abel Irizar, "Gurean Bai"ko arduraduna, elkarrizketatzen izan ziren eta ondoren proiektuan parte hartzen duten beste zenbait erakundetako arduradunekin ere hitz egin zuten. "Gurean Bai" proiektuaren nondik norakoak eta hiru urte hauetako arrakasta izango dira erreportajearen ardatz nagusiak. Erreportajea, asteburu honetan bertan emitituko dute. Larunbatean, hilak 22, "Hitzaro" saioan, goizeko 11:30ean ETB1ean, eta igandean ETB2 kateko *Lengua Viva* programan, eguerdiko ordubatean..



Mikel Lizarralde omendu zuten larunbatean Gazteen Gurutze Gorriko Taldekoek

Joan den larunbatean, hilak 15, Gazteen Gurutze Gorriko Taldekoek Mikel Lizarralderi omenaldia egin zioten Kultur Etxeko ganbaran. Mikelek taldearen sorreran parte hartu zuen eta orain utzi egingo du Gipuzkoako arduradun izatera pasako baita. Gazteen Taldeko haurrek eta begiraleek *Amona txis zezalea* antzerkia eskaini zuten eta ondoren, Mikeli plaka bat eman zion orain bere lekua hartuko duen Amelia Almeidak. Honen ostean play-back-a egin zuten. Beraz, lagun giroan eman zion amaiera Mikel Lizarralde urte hauetan Elgoibarren egindako lanari.




Hasi da Urruzuno taldearen "Literatur Astea"

Joan den astelehenean, hilak 17, diapositiba emanaldia eskaini zuten Esther Mugerzak eta Amaia Elosegik, Urruzuno Literatur taldeak antolatutako Aste Literarioaren barruan. Kultur Etxera hurbildu zirenek, bi neskek Turkia eta Myanmar artean bizikletaz egindako bidaian ateratako irudiak ikusi ahal izan zituzten musikaz lagunduta. Bertara joaterik izan ez zutenek *Txirringaren aienean* liburuan aurkitu ahal izango dituzte Kultur Etxean kontatutako pasarteak eta baita beste zenbait kontu ere. Gaur, osteguna, Literatur Astearen barruan Ongarri zine klubeko "Vidas al Límite" filmea ikusteko aukera izango da. Emanaldia ohi bezala Herriko Antzokian izango da gaueko 22:15ean. Asteleheneko ikuskizuna gustuko izan zutenek datorren asteazkenean, hilak 26, Jon Arretxe idazleak eskainiko duen hitzaldiaz eta diapositiba emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute, arratsaldeko 19:30ean, Gazte-txean. Gaia, "Bidaiatzea, bizitzeko modua" izango da.



Herri Eskolakoak Aurrehistoriako gizakien bizitza ezagutzen izan ziren Lasturren

Joan zen igandean, maiatzak 16, Herri Eskolako 30 haur eta 26 guraso Lastur inguruko pagadian izan ziren *Leizarpe Espeleologi Taldeko* monitoreekin. Hainbat jarduera izan zituzten bertan: txabolak egitea, pospolo edo txiskero gabe sua piztea, harrizko tresnak egitea... Honela, haurrek eta helduek, ekintza hauen bidez, Aurrehistoriako gizakiak nola bizi ziren ikasteko parada izan zuten.



ADINA: 29 urte
JAIOTERRIA: Elgoibar
IKASKETAK: Lanbide Heziketa
LANBIDEA: Fresadorea
EGOERA ZIBILA: Ezkongabea
ZALETASUN BAT: Mendia, bizikleta
LIBURU BAT: Chamán
KIROL BAT: Txirrindularitza
JANARI BAT: Pasta entsalada

ASIER ZENGOTITA ALBERDI



EUSKAL HERRITARROK

◆ Elgoibarren zer dago faltan? eta zer sobran?

- Espazio berdeak falta zaizkio, gune berdeak topatzeko herritik irten behar da. Sobran, berriz, etxebizitza pila bat. Honekin ez dut esan nahi kendu egin behar direnik, sobran daudela diot inork erabiltzen ez dituelako, eta berez, erabilgarriak direlako.

◆ Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta zein izkutatuko?

- Elgoibar osoa erakutsiko nioke, baina toki bat aukeratzekotan Sallobente bailara. Ezkutatu, berriz, ez nioke ezer ezkutatuko.

◆ Defini ezazu zure burua bi hitzetan.

- Buru gogorra.

◆ Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena?

- Euskal Herriko gizarte abertzalea burujabetasunaren bidean doala eta elkar ulertzeak badaudela.

◆ Aukera emango balizute zer aldatuko zenuke zure bizitzan?

- Galdera hori erantzutea zaila da, baina zerbait aldatzekotan, orain daukadan etxea ordainduta izatea.

◆ Zein egunkari irakurtzen duzu? - Gara.

◆ Norekin emango zenituzke pare bat ordu hizketan? - Lagun batekin.

◆ Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea? - Askatasuna.

◆ Erretzailea al zara? - Bai.

◆ Praktikatzen al duzu kirolik? zein?

- Maiztasunez ez dut kirolik praktikatzen. Baina, bizikletan ibiltzen naiz eta ahal dudanean Karakatera eta Erlo aldera ere egiten dut bueltaren bat.

◆ Erabiltzen al duzu telefono mugikorrik? - Ez, ez daukat.

◆ **Etxeko lanik egiten al duzu? zein?** - Bai, bakarrik bizi naiz eta ez daukat nik egitea beste erremediorik. Plantxa izan ezik beste lan guztiak egiten ditut.

◆ Emaiguzu arrazoi bat ekainaren 13an zuri botoa emateko.

- Euskal Herritarrok alderdiak hitzak baino nahiago du herriarekin konpromiso zehatz bat hartzea. Udala herrira egokitu nahi dugu, bere aldeko lana egiteko. Bestalde, ikuspuntu nazionaletik, Euskal Herria bere burujabetasuneruntz joateko konpromisoa hartu nahi dugu.

Legealdirako programa

- Egoera politikoa ikusita Elgoibar Euskal Herriko Udalerriren Biltzarrean egon behar da. Lehenengo batzarrean egon zen, baina pauso berriak eman behar dira.
- Udal demokratikoa nahi dugu. Egun, batzordeak informatiboak dira eta partaideek erabakiak hartzeko eskubidea izan beharko lukete. Udala herritarrengana gehiago zabaldu behar da. Plenoetan ere edozeinek izan beharko luke hitz egiteko eskubidea.
- Udalak euskararen normalkuntza konpromiso zehatza hartu behar du. Barrura begira, erabilpen plana bideratuz. Herrira begira, berriz, nagusien alfabetatzea eta "Gurean

Bai" proiektua bultzatu behar dira. Udalarekin erlazioak euskara hutsean egin nahi dituztenekin sare bat sortzen ere saiatuko gara.

- Komertzio txikiak lagundu nahi ditugu Elgoibarko alde zaharrari bizitza emateko. Horretarako, Plaza Txikian aparkaleku bat egitea proposatzen dugu.

- Haziendari dagokionez, aurrekontuak herriko beharrei erantzuteko egin behar dira. Bestalde, Diputazioak zergetatik itzultzen duen %10 igotzea eskatzen dugu.

- Ingurugiro batzordea sortzea beharrezkoa da, orain arte beste batzorde baten menpe egon baita.

KiliBARRREN

Maiatzaren 20a
55. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



H

ilabete honetako argazkia **Maria Teresa Garatek** utzi digu. 1961ean at-era zuten kuadrilako argazkia Mendaroko Garagartza plazan, monjen eskola edo konbentu parean. Argazkilaria Debako Allica izan zen. Argazkian agertzen direnak ondoko hauek dira:

Goiko ilaran: **Maria Jesus Urbieta, Maria Teresa Garate, Maite de Diego, Maria Jesus Azpiazu** eta **Itziar Lazkano**.

Azpiko ilaran: **Maria Isabel Landa, Mari Karmen Zulaika** eta **Maria Antonia Lazarobaster**.

Laster Mendaron denda berria!

Liburuak, papergaiak, jostailuak, fotokopiak, apaingarriak, oparigaiak, etxeko tresneria, sukaldeko ontzitegia, burdindegia..

FRONTOIAREN AURREAN

EAJ

J. Domingo Zulaika



Mendaroko elkarteetako kideei prestakuntza berezia eskaintzea da gure helburu nagusia. Gaur egun dituzten beharrei erantzuna emanez eta gizarte eta herri mugimendu konprometitua eratzeko ahalegin berezia eginez. Arlo askotan lan egiten saiatuko da EAJ legealdi berrian, hona hemen horietako batzuk:

- **Kultura:** 1999-2001 urteetarako formazio eskaintzan ikastaroak antolatzeke asmoa daukagu eta horietan hainbat gai landuko dira, besteak beste, kultura, sexua, herri eta gizarte mugimenduak eta ingurugiroa.

- **Hirigintza:** Udaletxe berria, industrialdearen bigarren fasea, Azpilgoetako etxebizitzak, N-634 errepedeko errotonda, belar artifizialezko futbol zelaia, igerilekua, gune berdeak...

- **Gaztedia:** Aisialdia bultzatuko dugu, gaztelekuaren bidez gazteen garapen osasuntsua lortzeko. Gazteei zuzendutako kirol ekintzak ere bultzatuko ditugu. Denbora liberarako ekintzetarako zentru bat eratu nahi dugu. Bertan jokuak, musika hitzaldiak... antolatuko lirateke. Gaztelekua, beraz, Mendaroko gaztediari zuzendutako aktibitate zentrua da, denbora librean aktiboki eta era kreatiboan betetzen laguntzeko egina dagoena.

Hautesku

Dagoeneko igaro dira lau urte aurreko udal hauteskundeak izan zirenetik, eta berriz ere gainean ditugu 1999ko hauteskundeak. Beraz, berriz gure eskubideak gauzatzeko aukera izango dugu datorren ekainaren 13an. Giroa jadanik berotzen hasia da, alderdi bakoitza hauteskunde aurreko proposamenak eta helburuak ezagutarazten ari da.

1999. urteko udal hauteskundeetan, sei alderdi

EH
Arantxa Egaña



- 1999. urtean egingo diren hauteskundera begira, Euskal Herriarrok taldeak eta oro har euskaltzaleok eta abertzaleok erronka handia dugula esan genezake. *Lizarra-Garaziko* akordioak, ETaren su-etenak eta Euskal Herriko udaletako Ordezkarien Biltzarrak egoera politikoari 360°ko bira eman diote.

- Ilusioa eta esperantza, Euskal Herri aske baten aldeko lana, hori guztia herriz herri eta auzoz auzo islatu behar dugu. Mendaron ere *Lizarra-Garazi* txikia sortu nahi dugu.

- Datozen lau urteetan, orain arte nabarmen falta izan den Udaletxe demokratikoa sortzen saiatuko gara, lanak eta proiektuak aurrera eramateko, Udaleko talde guztien partaide-tza aktiboa bultzatuz.

- Orain arte bezala, euskarak paper garrantzitsua jokatuko du, hizkuntzarik gabe ez baita Euskal Herririk. Bestetik, kultura eta gaztedia ere gai garrantzitsutzat hartzen ditugu, eta beharrezkoak ikusten ditugu baterako eta besterako gune egokiak, hau da, beharrei egokitutako lokalak.

- Ikuspegi ezkertiarretik eta abertzaleetik, Euskal Herri askea eta euskalduna nahi dugu, Mendarotik bertatik hasi eta berau eredu bihurtuz.

Indeak 99

MTI
Aingeru Gallastegi



politiko aurkeztuko dira Mendaron: EH, EAJ, EA, MTI, PSE eta PP. Hauteskundeak gainean direla-eta, talde bakoitzaren proposamenak eta helburuak zehaztuko ditugu. Horretarako talde bakoitzak alkatezara aurkeztuko duen hautagaiarekin egoteko parada izan dugu. Arantxa Egaña (EH), Jose Domingo Zulaika (EAJ), Gregorio Vives (EA) eta Aingeru Gallastegi (MTI) ekarri ditugu gure orrietara. PSE eta PPko hautagaiak zehazteke daude oraindik.

Bigarren aldiz talde mendarotar batek Udal hauteskunde-

etara aurkezteko erabakia hartu du. Handinahirik edo alderdi politikoen menpekotasunik gabe, guztiz independente, Mendarora zuzendutako ikuspuntu batekin.

Gure ustez MTI nabarmentzen duena taldekideon jarrera baikorra, dinamiko eta konstruktiboa da. Lau urteko esperientziak erakutsi digu gurea bezalako talde batek baduela bere lekua eta izateko arrazoia Mendaron.

Legealdi honetan ikusi ahal izan dugu Udalean, epe motzeko emaitzak bilatzen direla, egunean bertan ikutu eta ikusi daitezkeenak, etorkizunean zein eragin, ondorio edo jarraipen izango duten kontuan izan gabe. Udalean nagusi izan den pentsatzeko era honek helbururik gabe lan egitea ekarri du eta gestio txarraren ondorioz, dirua xahutzea. Guk epe ertainera eta luzera begira helburu eta norabide argi batzuekin lan egitearen aldeko apostua egiten dugu (Norma Subsidiarioen errebisioa etab.)

Udala herritarron zerbitzura dagoen erakunde bat da eta hala ere, bere jarduera arrotza da herritarron gehiengoarentzat. Udala eta herritarron arteko distantzia apurto beharko litzateke; Udalean hartzen diren erabakien berri emanez, eta herritarron kezka eta beharrrak modu egokian kanalizatuz.

MTIko partaide garenok ez dugu irabazirik ateratzen honetatik guztitik, baina uste dugu alderdi politikoei eskaintzen ez duten ikuspuntu, sentsibilitate eta azken baten jarrera desberdintzaile bat aportatzen dugula eta hori da hain zuzen, aurrera jarraitzea animatzen gaituena.

- Funtzionamenduari dagokionez, Udaleko barne lana talde guztien artean eztabaidatu, landu eta erabaki behar da lan talde ezberdinetan, horretarako sortuak baitira. Batzordeetan herriko jendeak parte hartzea aldarrikatzen dugu. Udalarekin zerikusia duten gestioak, erakunde ofizialekin eta pribatuekin, talde guztiekin eztabaidatuko dira, erabaki zuzenak hartzeko. Gardentasuna da gure ezaugarria.

- Kultur ekintzak, dinamika kulturala, bultzatzea nahi dugu. Gaztediarekin, talde sozialekin eta Udalaren lankidetzarekin, lokalak eta gune libreak prestatuz.


- Industrialdea bultzatzearekin bat gatoz, beti ere helburu garrantzitsu batekin: denentzako lanpostuak, gizonentzat naiz emakumeentzat. Udala erreferentzia puntua izan behar da lanaren banaketa egokian.

- Etxebizitza sozialak bultzatu behar dira, saltzeko naiz alokatzeko.

Euskararen erabilera bultzatu behar dugu eguneroko bizimoduan. Ez dakien jendeari laguntza eman, euskararen erabilpenaren ordenantzak berreskuratu eta denon artean aktualizatu.

- Bailerako erakundeak bermatzen ditugu eta harremanak sendotzen saiatuko gara.

EA
Gregorio Vives



❖ **BARREN Mendaron jasotzeko harpidetza kanpaina**

Euskara Batzordeak BARREN aste-kariaren banaketarako planteamendu berria egin nahi du. Orain arte BARREN Mendaroko etxe guztietara iristen zen. Baina, etxe guztietan ez dela irakurtzen ikusita eta horrek suposatzen duen kostua kontuan izanda, interesa dutenei eta benetan irakurtzen duten etxeetan banatzea erabaki dute Euskara Batzordean. Hasieran harpidedunek, urtean 500 pezetako kopurua ordaindu beharko dute BARREN etxean jasotzearen truke. Baina, 150 harpidedun baino gehiago egonez gero harpidetza doan izango da. Etxe bakoitzean ezingo da harpidetza bat baino gehiago egin. Beraz, irailetik aurrera BARREN astero zure etxeko buzoian jaso ahal izateko harpidetza egin beharko duzu. Horretarako bi aukera dituzu: herriko dendetan, tabernetan, elkarteetan, Ikastolan edo Udaletxean iaurkituko dituzun harpidetza orriak betetzea eta bertako kutxetan lagatzea edo ondoko telefonoetara deitzea: Udaletxea 943 75 61 00 edo Elgoibarko Izarra 943 74 16 26. Ez ahaztu, harpidetza nahitaezkoa da BARREN jaso ahal izateko.

❖ **Administrari laguntzaileen lan poltsa osatzeko deialdia**

Udalan noizbehinka administrari-laguntzaileen ordezkapenak edo iraupen zehatzeko lan kontratuak egiten dira. Beraz, lanpostu bat bete behar den bakoitzean azterketak egiten ez ibiltzeko, lan poltsa sortzea erabaki dute. Honela, administrari laguntzaileak azterketako emaitzen arabera zerrendatik aterako dira. Eskatzaileak Mendaroko biztanleak izan beharko dira eta gutxienez 18 urte eduki beharko dute. Administrazitako FPI edo antzeko tituloren bat izatea ere beharrezkoa da. Eskaerak Udaletxeko bulegoetan aurkeztu beharko dira maiatzak 21, ostirala, baino lehen. Azterketak, berriz, maiatzaren 24an, astelehena egingo dira.

Trinitate jaiak

Datorren igandean, hilak 30, Trinitate eguna da. Hori dela-eta Trinitateko Jai Batzordeak, Mendaroko Udalarren laguntzaz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Larunbatean, arratsaldeko 17:00etan



jaiei hasiera emateko kanpai soinuak eta txaploak izango dira. Igandean, goizeko 10:30ean Mendaroko txistularien kalejira izango da eta 11:30ean, berriz, meza nagusia Trinitate ermitan. Ondoren Mendaroko Abesbatzak kontzertua eskainiko du ermitan bertan. Kontzertuaren ostean txistulatiak eta Ospas eta Sabin trikitilariak arituko dira. Maiatzak 31, astelehena ere ekitaldiz beteta etorriko da. Goizeko 11:00etan Meza Santua izango da Trinitate

ermitan. Eguerdiko 12:00etan Ikastolako haurren bertso saioa entzuteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Ondoren Laja-Berastegi eta Poxpi trikitilariak hamaiketako alaituko dute. Ohizko legatzezko ogitartekoak eta txakolina dastatuko dute. Arratsaldeko 19:30ean bakilau jana izango da Aizpen. Jaietara emateko Laja-Berastegi eta Poxpi trikitilariekin erromeria izango da 22:30ean Trinitateko plazan.

Irabazteko asmorik gabeko elkarte eta taldeentzako dirulaguntzak

Joan den astelehenean, hilak 17, egindako udalbatzan, etekinik gabeko elkarteei eta taldeei aurtengo ekintzetarako ondoko dirulaguntzak ematea erabaki zuten.

ELKARTEA	LAGUNTZAK
Arno Guraso Elkarte	500.000 pta.
Kilimon Zahar Cazadores y Pescadores	69.000 pta.
Trinidadeko Jai Batzordea	110.000 pta.
Kilimon Kirol Elkarte	400.000 pta.
Lagun Betikoak Jubilatuen Elkarte	110.000 pta.
Aingeru Guardako Jaiak	85.000 pta.
Txirindulari Elkarteak	35.000 pta.
Eskolarteko Antzerki Jardunaldiak	25.000 pta.



Kultur errota




Kultur errota



Kultur errota


Maiatzak 28, ostirala Kultur Etxeko SOTOAN Gaueko 22:30ean



Jabier Muguruza

KANTARIA

80ko hamarkadan Zarama, Delirium Tremens edo Kortatu bezalako taldeekin aritu zen soinu-jole gisa. Hiru disko kaleratu ditu, *Aise* izenekoa azkena. Baina kantaria ezezik idazlea ere badugu Jabier Muguruza, 3 disko kaleratu ditu. Elgoibarren bere kanturik ezagunenak eskainiko dizkigu.



Joxean Artze

POETA edo OLERKARIA

*EZ DOK AMAIRU*ko sortzaileetariko bat. Bakarrik eta beste kantari batzuekin aritu da Artze, Mikel Laboarekin adibidez. *"Hitz and fits"* da Artzeren azken lana. Elgoibarren, berriz, poema berriak errezitatuko ditu. Poesia hauetan mezua eta edukia dira nabarmendu behar direnak. Intentsitate handiko poesiak dira.

Sarrera
500 pta.



Elgoibarko Izarra K.E.



Elgoibarko Udala




Kultur errota



Kultur errota



Kultur errota



Norberto Arriola

Norberto Arriola elgoibartarrak 37 urte ditu eta duela 9 urtetik Burlatan (Nafarroan) bizi da. Eibar-ko Armeria eskolan ikasketak egin ondoren, injenierutza ikas-

tak hasi zituen. Ikasketak amaitu gabe utzi eta *Sariki* lantegian hasi zen lanean. Gero, Iruñeako komertzio enpresa batean tekniko komertzial lanpostua aurkitu zuen. "Idoia nire emaztearekin ezkondu eta bi urtera etorri nintzen Burlatara. Oso gustura bizi naiz hemen, baina Elgoibarrera sarritan joaten naiz. Lehen ia asteburuero joaten nintzen baina orain bi urteko semea dut, Iker, eta zailagoa da batetik bestera mugitzea". Lagunez eta familiaz aparte itsasoaz gogoratzen da, "eguraldi ona dagoenean asko gogoratzen naiz itsasoaz, Elgoibartik ordulaurdenean zaude itsasertzean, eta hori gauza handia da. Burlatak bere abantailak ere baditu, Iruñako Gaztelu plazatik 2 km-ra dago eta hiri batek dituen zerbitzu denak eskura dituzu, jendea ere oso jatorra da". Norbertok auto lasterketak ditu gustuko, "Burlatara joan nintzenean ilusio handia egin zidan Pancho Egozkuek, 3 urtetan Europako txapelduna izandakoak, auto denda bat zuela ikusteak, asko gusatzen baitzait autoen mundua".



VIAJES **BILBAO EXPRESS** BIDAIAK

bidai agentziak babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Emilia Idiakez Egaña (1903-1996)



- 1903ko apirilaren 5ean jaio zen Itziarko Nikolenea etxean. 8 anai-arreba ziren, bera hirugarrena.
- Gaztetako ikasketak, beraien etxean bizi zen Dolores, maistra zaharrarekin egin zituen. Ondorengo urteak familiari laguntzen pasa zituen. Baratzean eta soroan aritzen zen lanean.
- Oso gazterik hasi zen Itziarko Aginagalde jatetxean zerbitzari lanetan. Hemen erromesaldiak, ezkontzak, promesak... eginaz joaten zen jende asko ezagutu zuen. 1924 urte inguruan Juanita Beristainekin josten ikasi zuen.
- Emili langilea, bizia, hizlaria eta txikia zen. Berak esaten zuenez, ez zen gehiago hazi gaztetan buru gainean arropa karga handiak eraman zituelako, Lizarbeko ganbiletatik eta Mutxiarteko iturritik.
- San Antonio egunean Sasiolara joaten zen Ines Moxuaneko sukaldariari laguntzera. Gauetz Inesen semea bere amari Mendaroko etxera laguntzera etortzen zen eta hemen ezagutu zuen Emilik senargaia.
- 1932an ezkondu zen Itziarren Domingo Zabaletarekin eta Mendaroko Azpilgoeta auzora joan ziren bizi izatera. Seme bat izan zuten.
- 1954an Elgoibarrera etorri ziren, Lerunera, eta 1948an, berriz, Errosario kalera. 1954an alargun gelditu zen.
- Bere zaletasunak, egunkaria irakurtzea, eskal abestiak eta gantxiloa ziren, ia hil artean gin zuen.
- Emili zintzoa, sinesmen handikoa eta familia girokoa zen. Izan zuen ilusiorik handiena, bere seme Antonen semea, Txomin Zabaleta, apaiz egitea izan zen eta Txomin 1997ko abuztuaren 13an ordenatu zen.
- Ia mende bat bete zuen emakume hau, 1996ko apirilaren 2an hil zen 92 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

OIERKI
IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15
☎ ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR



A

ste honetako argazkia **Miren Belokik** ekarri digu. 1945. urteko Trinitate jaietan atera zuten San Frantziskoko iturri aurrean. Meza Nagusiaren ostean, **Evaristo Izetarekin** batera agertzen dira **Miren** eta bere anaia **Antonio**. Evaristo Izetak bere jaioterrira, Elgoibarrera, egindako azkenetariko bidaia izan zen hau, 1957ko apirilaren 7an hil baitzen Tenerifen. Argazkian, ezkerretik eskumara: **Antonio Beloki**, **Evaristo Izeta**(†) eta **Miren Beloki**.

● **Sorospenek eta lehen laguntzetako titulua lortzeko ikastaroa**

Uretako sorospenek eta lehen laguntzetarako titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Klaseak asteartean eta larunbateetan izango dira Kiroldegiko igerilekuan eta maiatzaren 25ean hasiko dira. Guztira 75 orduko iraupena izango du ikastaroak eta titulazio honek igerilekuetan eta hondartzetan lan egiteko aukera eskaintzen du. Izena Kiroldegian eman daiteke (943 74 44 15).

● **Elgoibartarrek Gipuzkoako eskolarteko waterpolo txapelketa jokatu dute zapatuan**

Elgoibarko Igeriketa taldekoek Gipuzkoako eskolarteko waterpolo txapelketan parte hartuko dute larunbatean, hilak 22. elgoibartarrak, aurreko jardunaldietan sailkatu ondoren, Azpeitiako, Hernaniko eta Donostiako taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak, Hernaniko igerilekuan. Honako hauek dira Elgoibarko waterpolo taldea osatzen dutenak: Aingeru Osoro, Iker Zubiaurre, Miren Arrieta, Aitor Gisasola, Ines Segura eta Esther Ajubita.

● **Elgoibarko Lagun Taldea X. txirrindulari proba zapatuan jokatutuko da**

Datorren zapatuan, hilak 22, Txirrindularien Lagun Taldeak antolatuta 'Elgoibarko Lagun Taldea X. Saria' jokatuko da. Ibilbidea 52 km.koa da eta kadete mailako txirrindulariek parte hartuko dute. Irteera Plaza Handian izango da goizeko 10:30etan, helmuga, berriz, Santa Klara kalean kokatuta egongo da.

ANTT aholkularitzak eta C.D Elgoibarrek Merchandising akordioa sinatu dute

ANTT aholkularitzak eta C.D Elgoibarrek merchandising akordio bat sinatu dute. Printzipioz, 4 urtetako iraupena izango du. *Bazkide 2.000* txartela izango da akordioaren fruitua eta 1999/2000 denboralditik aurrera C.D. Elgoibarko kuota ordaintzen dutenek *Bazkide 2.000* txartela izango dute. Bazkideek zerbitzu askotan deskontuak izango dituzte. Zeintzuk izango diren zehaztu gabe dago, baina aurrerago jakinaraziko zaie bazkideei. Abantaila eta zerbitzuen adibide bat jartzearen,



Aitor

ANTT aholkularitzak asaguru eta aholku finantzieroetan zerbitzu batzuk dohainik eta beste batzuk merkeago eskainiko dizkie *Bazkide 2.000* txartela dutenei. Operazio hauetatik bideratutako komisioak izango lirateke klubarentzako diru iturriak. ANTT-k izango du zerbitzuak gestionatzeko ardura, baina txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak askoz zabalagoak dira. Erabiltzaileek abantaila ugari izango dituzte, akordioaren etekinak C.D. Elgoibar taldearentzat eta bertako bazkideentzat izango baitira.

Iker Beitia irrezko garaikurra eman diote

Pasa den domekan, hilak 16, *Haundik* Conquenseren aurka jokatu zuen Liga partiduaren hasieran, Iker Beitia *Haundiko* jokalaririk irrezko garaikurra jaso zuen. Eibarren jaio zen arren, gaur egun Elgoibarren bizi da, eta ia karrera osoa egin du *Haundin*, 10 urte baino gehiago. Garaikur hau 10 urte *Haundin* betetzen dituztenei ematen zaie eta orain arte oso gutxi izan dira ohore hau izan duten futbolariak. Bes-



Iker Beitia futbolari izandakoak, Julen Konde C. D. Elgoibarko lehendakariaren eskutik jaso zuen garaikurra.

te lauri eman zaie irrezko garaikurra Beitiauren aurretik: Lasari, Moskoteri, Apellanizi eta Xabi Alonsori. Aurtengo denboraldia izan da Iker Beitiauren azkena, futbola lagatzera erabaki baitu. Azken urtean ez du zorte handirik izan. Denboraldi hasieran orpoan min hartu zuen eta lesionatuta egon da ia denboraldi osoan. Dena dela, denboraldiaren amaieran futbola lagatzeko erabakia hartua zuen.

Xabi Gonzalez judoka Euskadiko txapeldunorde

Xabier Gonzalez Ibai Klubeko judokak zilarrezko domina irabazi zuen maiatzaren 9an, Leioako Askartza Klaret ikastetxean jokatu zen Euskadiko judo txapelketan. Xabik gipuzkoako selekzioa ordezkatu zuen. Kadete mailan 55 kiloz azpiko kategorian parte hartu zuen. Finalerdietan Gipuzkoako txapeldunari irabaztea lortu zuen, baina finalean urduri aritu zen eta zilarrezko



dominarekin konformatu beharra izan zuen. Tamalez, irrezko domina ezezik Ibizan jokatuko den Espainiako judo txapelketarako txartela ere galdu zuen. Bestalde, Maria Idiakezek zilarrezko domina irabazi zuen Eskolarteko Euskadiko judo Txapelketan. Eltziego herrian izan zen txapelketa eta Mariak 52 kiloz azpiko kategorian, infantil mailan parte hartu zuen.

70 lagun izan ziren Morkaikok antolatutako Elgoibarko Mendi Itzulian

Joan den domekan, hilak 16, Morkaikok antolatutako Elgoibarko Mendi Itzulia izan zen. Guztira 70 mendizalek parte hartu zuten proba gogor honetan. Antolatzaileek adierazi digutenez, “asteburuko eguraldi txarra ikusita jendia animauko ote zan beldurra zakagun. Aurrez jende gitxik izena eman zaban arren, jendia azken orduan animau zan”. Zorionez, eguraldia ere lagun izan zuten goiz osoan zehar. Aurtengo edizioan, partehar-tzaileek bi aukera izan dituzte: batetik, azken urteotako 38 km-ko ibilbidea egitea, (Elgoibar-Karakate-Irurutzeta, Azkarate-Urnoibitza-Mendaro-Arnoate-San Migel-Morkaiko-Kalamua-San Pedro eta Elgoibar). Juan Maria Arakistain izan zen itzuli laburrena amaitzen lehena, 6 ordu eta 30 minutu eman zituen ahalegi-nean. Bestalde, 8 mendizaleek aspaldiko ibilbide zaharra egitea erabaki zuten, ohizkoa baino ibilbide luzeagoa da, 45 km ditu. Ibilbide hau lehen aldiz, 1927. urtean egin zen. Garai haie-



Ibilbidean zehar atseden lekuak jarri zituzten antolatzaileek.

tan Elgoibar inguratzen duten mendiak 12 orduz azpitik zeharkatu ote zitezkeen eztabaida bizia zegoelako sortu zen Elgoibarko Itzulia. Aurtun, 6 ordu eta 30 minututan amaitu zuen lehenengoak, plaentxiar gazte batek. Morkaikoek esaten duten moduan, “itzuli honetan ez dago ez garailerik eta ez garaikurrik. Helburu nagusia mendizaleak elkartu eta mendiaz gozatzea da. Itzulia amaitu ondoren, antolatzaileek Merkatu Plazako goiko solairuan eskainitako bazkaria izaten da garaikur bakarra.

● Jo Ta Sua Realeko peñaren aurkezpena

Elgoibarko Realzaleen Jo Ta Sua peña astelehenean, hilak 24, aurkeztuko da Herriko Antzokian. Aurkezpen egunean Realeko zenbait jokalarik etorriko dira. Taldeko arduradunek esan digutenez, “Realeko arduradunek oraindik ez digute zehaztu zein izango diren Elgoibarre- etorriko diren jokalaririk”. Ekitaldia arratsaldeko 20:00etan izango da eta ondoren Realeko jokalariek eta Jo Ta Sua taldekoek lagun arteko afarria izango dute.

Pedrusko futbol taldea mailaz igo da



Pedrusko 2. erregionaleko taldea igoera fasea jokatzen ari da. Dagoeneko 1. erregionalerako igoera zihuratuta dute. Azken partidua bakarrik falta zaie jokatzeke, baina matematikoki sailkatzea lortu dute. Orain, ligako txapela dago jokoan eta Pedrusko taldekoek finala jokatzeke txartela lortu dute. Pedruskoek denboraldi bikaina burutu dute. Liga partidurik galdu gabe bukatu zuten eta igoera fasean ere partidua bakarrik galdu dute. Duela hiru urte Sigmako gazte batzuren ekimenez sortu zen taldea. Jose Mari Oruesagasti da lehendakaria eta Agustin Unzueta “Moskote” eta Mario Ortiz dira entrenatzaileak. Datorren denboraldian 1. erregionalean arituko dira eta Agustin Unzueta entrenatzaileak esan digunez, “gero eta ekipo serixuaua osatzen ari gera eta datorren urterako ilusio haundixa dakagu. 1. erregionalian lehiatzeko moduko taldia dakagu”.

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3 - Conquense 1
Elgoibar 2 - Kostkas 2 (Oho. Inf.)
Elgoibar 1 - Arrasate 2 (1. jub.)
Dumboa 5 - Elgoibar 2 (Nesk.)
Aretxabaleta 1 - Elgoibar 1 (1. kad.)
Segura 6 - Elgoibar 1 (1. erreg.)

Eskubaloia

IMH. 26 - Leizaran 22 (Sen. mut)

Esku pilota

Lagunak pilota Txapelketa

H. Arribillaga 18 - D. Mendibil 12 (Ben. aur)
G. Zulaika 18 - J. Salazar 9 (Benj.)
M. Portu 13 - A. Gumez 18 (Aleb.)
J. Mugerza 5 - A. Larrea 18 (Aleb.)
I. Ugalde 18 - I. Rodriguez 15 (Aleb.)
A. Agirrebeña 10 - H. Iriondo 18 (Inf.)
J. Muñoz 13 - A. Larrea 18 (Aleb.)

Herri Arteko Txapelketa

Bernedo/Ubera 17 - Aramendi/Lopetegi 18 (Kad.)
Arrillaga/Perea 11 - Peñagarikano/Lisazo 22 (Jub.)
Ansola/Balzola 12 - Irureta/Artetxe 22 (Nag.)

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalarik erregularrena 98/99

JOKALARIA PUNTUAK

1- Aitor Trebiño	32
2- Ibon Muguruza	32
3- Madina	30
4- Gurrutxaga	30
5- Díaz	29
6- Eneko	28
7- G. Lazaroaster	27
8- Txasio	26
9- Iker Leonardo	22
10- Caro	20
11- Beitia	18
12- Igor	16
13- Elkoro	15
14- Loren	13
15- G. Leonardo	10
16- Portu	1
17- Joseba Igartua	1

AGENDA

Esku Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 21
Herri Arteko Txapelketa
22:00 Elgoibar - Amezketan

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 22
16:00 Elgoibar - La salle (1. kad.)
17:45 Pedrusko - Allerru (2. erreg.)
Igandea, 23
17:00 Elgoibar - Zarautz (Nesk.)

Ikarak ozenago entzun behar dira

Gorrotua, beldurra, bortizkeria, ikara, ezustea eta beste hainbat sentsazio esna ditzake TODAY IS THE DAY izeneko talde basati honek. Edozein belarrizentzat eginak ez dauden hainbat disko argitaratu ditu hirukote amerikar honek dagoeneko, izugarriak denak. Izugarriko tratamendua jasotzen du kitarrak, zorrozturik balego bezala. Zer esanik ez baxuak eta bateriak, markatzen dituzten erritmoek ederki koipetutako makinak balira bezala funtzionarazten dute taldea ahotsaren bortizkeria ederki moldatuz.

Gizakiaren azken arnasa aurkitzea nahi balu bezala abesten du Steve Austin abeslariak, konposatzaileak eta kitarrajoleak, bere alde ezkutuena eta arriskutsuena ateratzear balego bezala.

Edozeinen gustuko taldea ez da, baina konposizio aldetik mantentzen duten arriskuaz originaltasunaren eremuak ferekatzera heltzen dira eta ohizko instrumentuak erabiliz gainera, non ikus daiteke hori gaur egun?

Subjetibotasunez betetako gomendio bat, erosi edo lor ezazue "Wilpower" diskoa ez baitzarete damutuko... edo bai.

Iban Urizar



Udal Bandak Evaristo Izeta musikaria jaio zeneko mendeurrena ospatuko du

Tenerifeko musika bandako zuzendaria izan zen 30 urtez

Evaristo Izeta musikaria 1899ko maiatzaren 1ean jaio zen Elgoibarren. Jaio zeneko mendeurrena ospatzeko, Elgoibarko Musika Bandak omenaldi beroa eskainiko dio Domekan, hilak 23. Bertan Evaristok konposatutako dantza modernoek beldura entzuteko aukera izango da.

Izeta kafe ospetsuko Domingo eta Petra elgoibartar ezagunen semea. Evaristoren bizitza ezin da musikatik bereiztu. Inazio Bereziartuarekin ikasketak egin ondoren, 13 urte besterik ez zituela bere amak bultzatuta Bilboko kontserbatoriora joan zen musikako ezagupenak zabaltzera. Bilbon, garaiko musikari onenekin ikasteko aukera izan zuen: Jesus Guridi, Jose Franco, Nemesio Otaño eta Regino Ariz izan ziren Evaristoren maisuak. Laster gailendu zen bere kideen artean eta 17 urterekin pianoko 8 kurtso eta organuko 4 eginak zituen. Zuzendari karrera ere goiz hasi zuen eta 16 urterekin Gorlizko Musika Bandako zuzendaria zen. Lau urte beranduago Zumaiako zuzendari postua lortu zuen. 29 urterekin Soldaduzka Teatun egin zuen. Zumaiako zuzendari postua utzi eta Santa Cruz de Tenerifeko Musika Bandako zuzendari lanpostua opoaketa bidez atera zuen. Irla horretan 30 urte luzez bizi izan zen eta oso pertsonaia ospetsua egin zen. Musikari bezala ekitaldi kulturaletan, irratietan eta hainbat antzokitan parte hartu zuen.



Konposagilea ere izan zen eta egindako obren artean *Guayaquil*, *Fantasia Egipcia*, *Himno a la accion ciudadana*, *Motivo Japonés* eta *Capricho Oriental* ditugu. Azken konposizio honek ospe handia lortu zuen *Irusta*, *Fugazot* eta *Demare* artista argentinarrek grabatutako diskoari esker.

Evaristok ez zituen bere sustraiak inoiz ahaztu. Berari esker egin zen Tenerifeko frontoia eta futbolzale amorratua ere izan zen, Tenerife futbol taldearen golak txapela airera boteaz ospatzen zituen.

Ustekabean hil zen 1957ko apirilaren 7an. Erlizioan asko sinisten zuen eta igandero bezala El Pilar elizara joan zen eta kontzertua zuzendu zuen, ordu batzuek beranduago hil zen. Evaristoren heriotzak samin handia sortu zuen irlan eta hileta elizkizunetan 3 bandak parte hartu zuten.


Amaitu dira Dia Das Letras Galegas jaiak

Galiza Etxeak urtero antolatzen dituen *Dia Das Letras Galegas* jaietako ekitaldi nagusiak joan den asteburuan izan ziren. Horien artean, Haritz Dantzari Taldeak, Udal Txistulari Bandak eta *Dragons Vermellos Gaita Taldeak* elkarrekin eskaini zuten ikuskizuna nabarmendu zen. Galiziako eta Euskadiko folkloreak bat egin zuten herriko kaleetan lehenik eta Herri Eskolako jolaslekuan ondoren. Galiziarrek Ourenseko dantzez gain gaita eta tanbor soinuak eskaini zituzten. Beste ekitaldirik ere izan zen ordea, Galiziako jaki eta edari tipikoen dastaketa eta D' Camara

eta Cocktelera orkesten berbenak izan baitziren asteburu osoan Herri Eskolako jai gunean. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina euria ohiko gauza da bai galiziarrentzat eta bai euskaldunentzat eta ez zen oztipoa izan jai giroa nagusitzeko.



Manolak



Amaia Rodriguez

Eulali Moreno

Eulali Morenok eta Amaia Rodriguezek, 20 eta 21 urte dituzte hurrenez hurren. Eulali, Haur Ezinduen Hezitzaile izateko ikasten ari da eta sikiatrikoan ari da praktketan. Amaia, berriz, Enpresaritzza ikasten dabil. Baina, BARREneko orrietara beste arrazoi bitxi batek ekarri ditu. Eibarren, Ignacio Zuloaga omentzeko zezenketa egin zuten duela bi aste eta bertan "Manola" gisa atera ziren Eulali eta Amaia. Gu bi neska gazte hauekin egon gara ekitaldiaren berri jakiteko.

NOLA AUKERATU ZINTUZTETEN "MANOLA" IZATEKO?

- Lagun baten aitxak Eibarko "Peña Taurina"ko presidentia, Simplicio Monedero, ezautzen zaban eta honek esan zion hiru neska bihar zitxuala. Lagunak guri komentau zigun bazakixalako gustatzen jakula eta gu animau in ginan.

ZER EGINKIZUN IZAN ZENITUZTEN?

- Hiru egun eman ditzugu bertan. Hasteko, argazki sesuia euki gendun. Gero, "Manolen" presentazioko afarira jun ginan. Han lorak eman zizkiguten eta "Peña Taurina Pedrucho"ko jendiakin oso ondo pasau gendun. Korridako egunian Arrate Hotelian jantzi ginan, eta preparautakuan estaziotik zezen plazara kotxe deskaportable baten jun ginan jendia saludatzen, han plaziari buelta batzuk eman eta palkotik ikusi gendun korridia.

URDURI EGON AL ZINETEN?

- Ez, zezen plazara sartu aurretik eta palkuan trankil egon ginan. Kalian ez zauan jende askorik eta ondo. Txarrena zezen plazara sartzia izan zan, kotxiak ez zaban arrankatzen eta piskat nerbiosa ipini ginan. Behin palkuan jarritxa ambientian sartu ginan eta ikusle bat gehixo besterik ez ginan. Lorak ere bota genitxun, baina pañuelua ezin gendun atera. Nik ez naban kontrolatzen (Amaia), nere ustez belarrixak, buztana eta dana eman biharko liekete torerueri. Nik (Eulali) txikitan aitxakin telebistan ikusten nitxun korridak eta berak esplikatzen zian, orduan zeozer banakixan.

ZER IRITZI DAUKAZUE ZEZENKETEI BURUZ?

- Neri (Eulali) gustatzen jataz baina gaizki iruditzen jata zezena hiltzia. Hasieratik bukaerara asko sufritzen dabela

uste dot eta pena haundixa ematen dia, banderilak, zaldixan duanak zirikatzen dabanian... Nik (Amaia) sekula ikusi gabe nakan zezenketa bat eta "Manola" bezela jun nintzan deitxu in ziatelako eta esperientzia politxa zala iruditxu jatalako. Zela toreatzen zaben ikustia gustau jatan, baina zezena hil zabenian sufrirxu in naban. Zezen plazako saltzia eta ambientia ikustia ere politxa da.

TOREROAK EZAGUTZEKO AUKERARIK IZAN AL DUZUE?

- Bai, oso jatorrak dia gainera. Canales Riverakin oso gutxi egon ginan, baina Mendoza eta Morenokin hitz egiten egon ginan eta argazkixak ere atera genitxun.

JANTZIAK NOLA LORTU DITUZUE?

- Soineko beltza guk eruan gendun eta mantila, mantoia eta peineta beraiek laga zizkiguten. Dana bukatu eta kentzeko orduan penia eman zigun. Oso esperientzia politxa izan da.

INGURUKOEK ZER ESAN DIZUETE?

- Lagunek zoratuta gaudela esan digute eta gure kontura barre asko in dabe. Batez ere periodikuan-eta agertu geranian. Etxekueri, berriz, kriston ilusua in die. Korridako egunian ere ikustera jun zian eta oso pozik, gu han "Manola" bezela ikustiakin.

EREPIKATUKO AL ZENUTEKETE?

- Ezin dalako, baina bestela bai (Eulali). Hori bai, Eibarren izan biharrian Sevillan-edo, eta beste torero batzukin hobeto. Nik ez dakit errepikauko naban (Amaia). Esperientzia pasau dot, oso politxa izan da, gustura ibili naiz, baina errepikau... ez dakit. Eman diguten atentziua ere oso ona izan da, gurekin benetan ondo portau dia.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743864
Mendaroko Ospitalea . . 943 032800
Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
Udal Kirol Patronatua . . 943 744415
Kultura Zerbitzua . . 943 742158
Mendaroko Udala . . 943 756100
Ongizate zerbitzua . . . 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa . . . 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola . . . 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola . . . 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre . . . 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
El Correo Español . . 943 74 10 82
Egin 943 10 84 21
Zazpiki irratia . . 943 74 34 74

21 ostirala

20:00 "HURBILKETAK"

ARGAZKI
ERAKUSKETA

Egilea: Antonio Irisarri
Antolatzailea: Ongarri
fotografia kolektiboa
Kultur Etxean

22:30 "GOGOAREN
HEGALAK" DANTZA
SAIOA

Josu Mugicaren koreografia
Herriko Antzokian
Sarrerak: Aurrez, Pitxintxu
eta Gorostizan (500 pta.)

22 larunbata

10:30 TXIRRINDULARI

PROBA

Antolatzailea:
Elgoibarko Lagun Taldea

11:00 PILARREKO
GURASOEN EGUNA

Antolatzailea:
Pilar ikastetxea
Pilar Ikastetxeko jolaslekuan

12:00 49. URTEAN

JAIOTAKOEN
URREZKO EZTEIEN
OSPAKIZUNA

12:00 ZAZPIKI
IRRATIKO BATZARRA
Ganbaran

19:00-22:15 ZINEA
"La delgada linea roja"

19:00 KONTZERTUA

Segismundo Toxicómano
eta Cleavaje
Gaztetxean (dohainik)

23 igandea

9:30 DULTZAINEROEN
KALEJIRA

10:15 UDAL
BANDAREN KALEJIRA
San Roke bailaran

12:30 UDAL BANDAREN
KONTZERTUA

Evaristo Izetari omenaldia
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
"Star Trek: Insurrección"

19:00-22:15 ZINEA
"La delgada linea roja"

24 astelehena

17:00 SUKALDARITZA
IKASTAROA

Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea
Maiatzaren 28ra arte

18:00 AKUARELA
IKASTAROA

Antolatzailea:
Egur Arte Tailerra

20:00 JO TA SUA
PEÑAREN

AURKEZPENA
Herriko Antzokian

22:15 ZINEA
"La delgada linea roja"

25 asteartea

19:00 HITZALDIA

Hizlaria:
Mitzel Sarasketa preso ohia
Gaia: Euskal Presoak
Euskal Herrira
Kultur Etxean

19:30
MUSIKESKOLAKO
IKASLEEN KURTZO
BUKAERAKO
KONTZERTUAK
Herriko Antzokian

26 asteazkena

19:30 HITZALDIA eta

DIPOSITIBA
EMANALDIA

Hizlaria:
Jon Arretxe idazlea
Gaia: "Bidaiatzea,
bizitzeko modua"
Antolatzaileak: Urruzuno
Literatur Taldea
Gaztetxean

19:30
MUSIKESKOLAKO
IKASLEEN KURTZO
BUKAERAKO
KONTZERTUAK
Herriko Antzokian

ZINEA



Zuzendaria: Terrene Malick.
Antzezleak: Sean Penn,
Ben Chaplin, Jim Caviziel.

La delgada linea roja

Bigarren Mundu Gerran 'C-for-Charlie' konpainiaren helburua japoniarrek Guadalcanaleko irlan duten posizioa eskuratzea da. Konpainiako soldadu bakoitzak bere barne izuei egin beharko die aurre, balentriak ez baitu tokirik gudan. Garai-pen bakarra bizirik irtetea eta denak elkarrekin etxera itzultzea da.

27

osteguna

19:30

MUSIKESKOLAKOEN
KURTZO BUKAERAKO
KONTZERTUA

Herriko Antzokian

22:15 ZINE KLUBA

"Dioses y monstruos"

28

ostirala

19:30 HERRI

ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

22:15 ZINE KLUBA

"Dioses y monstruos"

22:30 KULTUR

ERROTA

(8. EMANALDIA)

Partehartzaileak:

Jabier Muguruza eta

Joxean Artze

Kultur Etxeko Sotoan

Antolatzailea:

Elgoibarko Izarra

Oharra*:

Akats bat dela-eta, 277. alean jarri genuen "La delgada línea roja" pelikula aste honetan izango da. Barkatu era-gozpenak.

● Gurasoen eguna Pilar ikastetxean, zapatuan, hilak 22

Pilar ikastetxeak, urteroko ohiturei jarraituz, gurasoen eguna antolatu du maiatzaren 22rako, zapatua. Goizeko 11:00etan emango zaie hasiera prestatutako ekintzei: jolasak, tailerrak, futbito partiduak... izango dira. Eguerdiko 14:00etan bazkaldu ondoren, bingo eta mus txapelketak jokatuko dira. Egun zoragarri honi amaiera emateko, afaldu ostean dantzaldia izango da. Beraz, guraso eta haur denak gonbidatuta daude jai honetan parte hartzera.

● Jon Arretxe idazlearen hitzaldia eta diapositiba emanaldia, hilaren 26an

Urruzuno Literatur Taldeko gazteek antolatu duten Aste Literarioarekin jarraituz, Jon Arretxe idazle Basauriarrak, "Bidaiatzea, bizitzeko modua" hitzaldia eskainiko du asteazkenean, hilak 26, Gaztetxean. Jon Arretxe munduko herrialde askotara bidaiak egindakoa da. Bidaia horietan oinarrituz "Tubabu" eta "Tuparen seme-alabak" bidaia liburuak idatzi ditu. Hurbiltzen diren guztiek, diapositiben bidez izango dute bidaia hauetako argazkiak ikusteko aukera. Saioa arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

● A. Irisarriren "Hurbilketak" argazki erakusketaren inagurazioa, bihar, hilak 21

Ongarri fotografia kolektiboak antolatutako, Antonio Irisarri argazkilariaren "Hurbilketak" argazki erakusketa inaguratuko da bihar, hilak 21, Kultur Etxean. Gaur egun Eibarraren bizi den arren, luzaroan elgoibarren bizi izandakoa da. Elgoibarren bere azken lana izango dugu ikusgai. Oso hurbiletik ateratako argazkiak izateaz gain, kolorezko abstrakzio jokuak dira. Erakusketa ikusteko ordutegia, astelehene-tik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara izango da, eta ekainaren 5era arte egongo da zabalik.

● Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua

Igandean, hilak 23, Udal musika Bandaren kalejira izango da goizeko 10:15ean hasita. Karakate Elkartek 25. urterrena betetzen duela, ospatzeko Udaleko Musika Banda gonbidatu du. Kalejira San Roke bailaran izango da eta amaieran amarretakoa egingo dute Karakate Elkartean. Eguerdiko 12:30ean, berriz, kontzertu berezia eskainiko dute Herriko Antzokian, Evaristo Izetaren jaiotzaren men-deurreneko kontzertua izango baita.

● Ongarri zine klubaren azken emanaldia

Ongarri Zine Klubaren 98-99 denboraldiko azken pelikula izango da "Dioses y monstruos". Urrian hasi zen Zine Kluba, eta guztira 28 pelikula ikusteko aukera izan da Herriko Antzokian. Hainbat arrazoi tarteko herrietara heltzen ez diren filmeak izan dira gehienak, 'beste zinea' bezala eza-gutzen dena, alegia.

● Finalista Eguna San Pedron

Morkaikok Finalista Eguna antolatu du ekainaren 6rako. Dominak jaso nahi dituztenek 1998. urtean egindako mendien zerrendak datorren larunbata, hilak 22, baino lehen aurkeztu beharko dituzte Morkaiko M.E-ren egoitzan.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
21	Etxeberria	Etxeberria (Erosario kalean)
22	Yudego*	Escala
23	Yudego*	Escala
24	Bidasolo	Bidasolo
25	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
26	Anduaga	Anduaga
27	Yudego	Yudego
28	Zabaleta	Zabaleta *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA:

Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA:

Herriko

enparantza,4 Garagarza.

Tel:943 75 61 42

ZABALETA:

Kalebarren, 9

Soraluze. Tel:943 75 13 84

OKINDEGIA

23 igandea Doña Mercedes

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Bill Condon.

Antzezleak: Ian Mackellen, Brendan Frasier, Lyn Reedgrave.

Dioses y monstruos

James Wale zinegilearen bizitza eta pelikula hurbiltzen dizkigu filmeetaz hitz egiten duen pelikula original honek. *Frankenstein*, *Frankensteinen neska laguna* eta *Gizon ikustezina* dira James Wale-ek sortu zituen maisu lanak. Pelikula hauekin beldurrezko generoa suspertzea lortu zuen.

Etxebizitzak

- ◆ Bungalowa alokatzen da Santa Polan (Alicante). Abuztua eta iraila. ☎ 943 74 12 13 (Gauze)
- ◆ 23 urteko mutil batek gela bat nahi du pisu konpartitu batean. Maiatzaren 16tik uztailearen 31ra bitartean. ☎ 943 74 80 66 (18:00rak arte)
- ◆ Pisua alokatuko gence irailetik aurrera. Altzariekin. 4 neska. ☎ 943 76 23 80 (Naiara)
- ◆ Pisua alokatuko nuke 8 bat hilabeterako. Ahal bada altzariekin. ☎ 943 74 09 44
- ◆ Pisua behar dut alokatzeko. Prisa dauka. Altzariekin. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09
- ◆ Pisua daukat alokatzeko. Akademia edo bulegoa jartzeko proposa. S. Frantzisko kalean, 2. pisuan. Prezio onean. ☎ 943 74 03 71 (Ana M.)
- ◆ Pisua salgai Errosario kalean. ☎ 943 74 17 95
- ◆ Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 23 63

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Bi kateme persa salgai. ☎ 943 74 30 29 (Deitu 5etatik aurrera)
- ◆ Kanpin denda salgai. Familia-rra da, 2-4 pertsonentzako. Tol-doarekin eta montatzeko erraza. ☎ 943 74 05 37
- ◆ Novica "Jet" karabina salgai, urtebete baino gutxiago dauka. Cal. 5,5. Vel. inicial 240 m/s. Egoera onean ☎ 943 74 01 46.
- ◆ Rover 520 SI autoa salgai. Bi urte ditu. Ekonomikoa. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Seat Toledo GLX 1.8i SS-AL salgai. ☎ 943 74 24 83
- ◆ Game Gear kotsola saltzen da prezio onean. ☎ 943 74 34 06 (18:00etatik aurrera)
- ◆ Autoa salgai. Super 5, SS-X. Prezio ona. ☎ 943 74 01 34 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Bigarren eskuko ordenagailuak salgai. ☎ 943 76 28 68/76 12 52
- ◆ 3 katu persa salgai. 943 74 30 29 (17:00etatik aurrera. Jairo)
- ◆ Ford Orion 1.6 diesel autoa salgai. Garantizatua eta egoera onean. ☎ 630 59 28 46 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

OHARRA:
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Asteburuetan dendan lan egiteko neska behar da. Interesatuak dei ezazue lehen bailehen. ☎ 943 74 27 58
- ◆ Neska gaztea behar da aste bukaeratan ogitaratekoak egiteko. ☎ 600 20 87 10
- ◆ Kamareroa behar da astegunetarako. ☎ 619 86 30 16 (Oraiko)
- ◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira 20-30 urte bitartekoak. Elgoibarko tabernarako. ☎ 630 61 76 11
- ◆ Kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00era. Kontxi)
- ◆ Esperientziadun kamareroa behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:00-19:00)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Umeak edo edadetuak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 75 51 93 (Rosa)
- ◆ Nire burua eskaintzen dut bulegoak garbitzeko edo edadetuak zaintzeko. ☎ 943 74 06 85
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko, edo umeak zaintzeko, orduka. ☎ 943 58 40 31
- ◆ Klinika laguntzaile euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientzia eta informeak ditut. ☎ 943 74 04 86
- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauze. ☎ 943 74 27 78
- ◆ Gaixoak edo edadetuak zaintzeko esperientziadun emakume euskalduna eskaintzen da. ☎ 943 74 01 57 (Gauze deitu)
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Arratsalde txostenak ordenagailuz pasatzeko eta bulegoko gestioak egiteko prest nago. ☎ 943 74 39 67 (Nerea)

Bestelakoak

- ◆ Bi pertsonarentzako astebeteko bidaia eskaintzen dut. Parisera edo Erromara. Prezio ona. ☎ 943 74 45 00
- ◆ Zilarrezko belarritako bat galdu dut San Bartolome kalean. Zirikonitazko perla bat dauka. Bilatzen duenak deitu ☎ 943 74 26 78 telefonora (Olga)
- ◆ Seter ingles emea erregalaten dut. ☎ 943 74 29 47
- ◆ Urrezko perladun belarritako bat galdu dut. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala zerbaki honetara: ☎ 943 74 37 82
- ◆ Baserria alokatzen da Zaldibarraren. Ortua eta korta dauka. Interesatuak helbide honetara jo: Zaldia Plaza 5, Zaldibar (Amaia).
- ◆ Lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio eta egoera onean. ☎ 943 74 25 17

Garajeak

- ◆ Arregitorren marradun garajea alokatzen da. ☎ 943 74 32 48
- ◆ Marradun garajea alokatzen dut San Roke, 5 - 7an, Karakate elkar-tearen azpian. ☎ 943 74 33 39
- ◆ Garaje marraduna alokatzen dut Aterpe tabernaren azpian. ☎ 943 74 30 33
- ◆ Olasope industrialdean garaje itxia salgai. ☎ 943 74 31 56
- ◆ Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 03 81

Agurrak

- ◆ Zorionak Ainhoa Mendibili, hilaren 18an 11 urte bete zituelako. Familia osoaren eta bereziki bere ahizpa Maddiren partez. Zorionak baita ere Estibalizen partez, ondo pasa eguna Ondarrun.



◆ Txikia zinenean emozio ugari eta orain bizi poza. Ze txoilo du-dan! Zorinak
Enara Gorostizari, zurekin gaudenon, eta bereziki amaxoren partez. Ez ahaztu gonbitea.

◆ **Enara Castri-lejo**. Maiatzaren 21ean aitxitxan, amaman eta lehengusuen partez zorionak zure 5. urtebetetzean.




◆ "Mila kilo zorion dizugu eskaintzen, beste urte berri bat duzulako hasten". Muxu handi bat eta belarritik 2 tirakada, **Iker Fernandez**tzat, gurasoen, arreba Dorletaren, lehengusina Eiderren eta Etxeko guztien partez. Ondo pasa igandean.

◆ Zorionak **Mariari**, gaur maiatzak 20, zazpi urte bete dituelako. Bere anaia Andoniren eta familia guztien partez.



◆ Zorionak **Amaia**ri, hilaren 24an urteak beteko dituelako. Familia guztiaren, Juanen eta Miriamen partez.



◆ Zorionak **Unai Arreseri**, hilaren 19an urtebete egin zuelako. Familia osoaren eta bereziki Aitorren eta Iratiren partez.



◆ Zorionak **Janireri**, hilaren 19an 7 urte bete zituelako. Familia guztiaren eta bereziki ahizpa Iraideren partez.



◆ Zorionak **Angel Sanchezi**, hilaren 23an urteak beteko dituelako. Familia guztiaren eta bereziki Ose-len partez.



1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua
San Roke auzoa, 1
20870 - Elgoibar
Tel. 943 74 41 32
E-posta: amaia@fmh.es

Bilera informatiboa: maiatzak 28, arratsaldeko 17:00etan

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.



ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43-1. – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1. – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

Trinitate jaiak

Gurean aurkituko dituzu jaiak hasteko osagairik onenak

ATERPE



San Roke, 5 · Tel: 943 74 25 95

HEMENDIK

Berezitasunak
Erretakoak
Kazuelatxoak
Olagarroa



Pedro Muguruza, 20 · Tel: 943 74 25 00

IBAI ONDO

Berezitasunak
Entsalada hotz eta epelak
Bertako okela eta arraina
Etxeko goxoak



Giza Eskubideen enparantza · Tel: 943 74 26 27

OLASO

EGUNEROKO eta ASTEBURUETAKO MENUAK

Berezitasuna
Arraina



Olaso, 15 · Tel: 943 74 31 85

TXANALA

Berezitasunak
Txitxarroa
Zapua
Sahieskia parrilan



Bainuetxeko Zumardia, 5 · Altzola · Tel: 943 74 43 46

ZUBIA

Berezitasunak
Arraina eta okela errea
Bildotsa burduntzian



Bainuetxeko Zumardia, 2 · Altzola · Tel: 943 74 05 13